

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Azken afaria

OZEANO ATLANTIKOA, 1912ko apirilaren 14a. Afalorduan *Titanic*eko bidaiari guztiak ontzia-
ren jangela ikusgarrietan bildu ziren; bakoitza bere klaseari zegokion jangelan, noski. Itsasontziko egunak lasaiak ziren, aspergarriak sarritan, baina egunero lau otordu eginez denbora errazago pasatzen zen. *Titanic* ez zen soilik bere garaiko ontzirik luxuzkoena eta azkarrena, ur gaineko jatetxe erraldoia zen.

Gau hartan lehen klaseko kartak 10 plater zituen: izokina muselina saltsan, arkume erreka mentarekin eta waldorf tarta ederra, besteak beste. Kapitaina buru zuen mahaiak afari are bereziagoa izan zuen. Menua Auguste Escoffier-ek aukeratua zen, Belle Époqueko guru gastronomikoak. Ostruka arrautzak kabiarrarekin, thermidor otarraina eta sorpresadun laranja jak zituzten pibilegiatuenek.

1985ean aurkitu zituzten kartak itsasontziaren arrastoen artean eta, hondoratze eza-
gunaren inguruko azken filman, James Cameron zuzendariak menuetako platerak xehetasun osoz kopiatzeko eskatu zuen. Film sarituan klaseen arteko aldea nabarmendu nahi izan zuten, baina benetan alde hori ez zen hainbestekoa izan gastronomiari dago-
kionez; ez lehorrean baino handiagoa behin-



Goian, *Titanic*-eko jangelatako baten argazkia. Azpian, Lehen klaseko menuaren karta.

tzat. Azken afari horretan hirugarren klaseko bidaiariek txahal-ragua eskabetxean jan zuten, tipulaz lagunduta. Garai hartan ontzietan ohikoena bidaiari pobree-
nei otordurik ez ematea zen, hots, jakiak eurekin eraman behar zituzten bidaia osorako. Lehorrean baino kalitate eta kantitate handiagoan jan zuten, beraz.

Orotara, 40 sukalde zeuzkan ontziak, 100 bat sukaldari eta 2.228 pertsonentzako jaki eta edariak gordetzeko hotz-ganbera erraldoia. Southamptongo portutik irten baino lehen itsasontziko sotoak lepo bete zituzten: 37,5 tona okel fresko, 5,5 tona arrain fresko, 25.000 hegazti, 40.000 arrautza, 40 tona pata-
ta, 36.000 laranja, 3 tona gurin, 6.750 litro esne, 875 kilo izozki, 15.000 garagardo botila... *Titanic*eko baxerak 57.600 pieza zituen, eta kuberterriak 44.000.

Izeberrak 23:40etan jo zuen *Titanic*en kas-
koa. Ternua inguruko ur hotzetan amaitu zute-
nentzat digestioa ez zen ederra izango. Eta eskerrak bizirik irten ziren 705 bidaiariak bere-
hala erreskatatu zituzten, bestela "tragedia" are handiagoa izango zen. Ederki jaten ohituta nonbait, bizirik irten zirenetako batek (lehen klasekoa zen, noski) zera esan zuen: "Ez geneukan urik, ezta galleta bakar bat ere". ■

ARRASTOAK

ALEXANDRO HANDIAK naturaren laguntza izan zuen bere garaipen mili-
tarrik garrantzitsuenetakoan. Inguru-
menaren Geozientzien Europako Zen-
troan (Aix-en Provence, Frantzia) egindako ikerketaren arabera, K.a. 332an Alexandrok oztopo ugari zuen Tiro konkistatzeko. Garai hartan Tiro uhartea zen eta 45 metroko altuera zuten harresiez inguratua zegoen. Hilabete luzez saiatu zen Alexandro tiroarrak mendean hartzen, baina alfe-
rrik. Azkenean bere aginduetara zeu-
den ingeniariak kilometro bateko



Tiroko setioa, Andre Castaigne-ren grabatuaren arabera.

zubia eraiki zuten itsasoan, olatu han-
diak izan ohi ziren tokian gainera.

Arkeologoek ezin izan dute orain arte esplikatu nola izan zen posible horrelakorik egitea. Orain erantzuna geologiak eman du: Brontze Arotik harea eta sedimentuak biltzen joan ziren bertan eta, horrela, pasabide naturala sortu zen, ingeniariak artifi-
zialki zabaldutena. Inbasioa arrakastatsua izan zen eta 8.000tik gora tiroar hil zituzten. Zubiak toki horretako geografia betiko aldatu zuen; Tiro istmoa da gaur egun.